

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Lankidetzaren hitzarmena, Arabako Foru Aldundiaren, Araba Garapen Agentzia SAREN, Asparreneko Udalaren eta Donemiliagako Udalaren artean

Asparreneko Udalak, 2020ko abenduaren 3an udalbatzak egindako ohiko bilkuran, onetsi zuen Arabako Foru Aldundiaren (Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saila), Asparreneko Udalaren, Donemiliagako Udalaren eta Araba Garapen Agentzia SAREN arteko lankidetzaren hitzarmena aldatzea. Hitzarmenaren helburua hau da: A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbidea berrantolatze eta hobetzeko eraikuntza proiektua finantzatzea eta kudeatzea.

Hitzarmena aldatu ondoren, haren testu osoa ondoren ematen den hau da (adierazi behar da aipatzen den eranskina interesaturik dagoen edonoren eskura dagoela udalaren bulegoetan, aztertzeko).

Arabako Foru Aldundiaren (Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saila), Asparreneko Udalaren, Donemiliagako Udalaren eta Araba Garapen Agentzia SAREN arteko lankidetzaren hitzarmena, Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbidea berrantolatze eta hobetzeko eraikuntza proiektua finantzatzeko eta kudeatzeko a-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan

Vitoria-Gasteiz, 2020ko

Bildu dira

Blanca de la Peña Bernal, Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren sail horren izenean eta ordezkari gisa.

Consuelo Auzmendi Jiménez, Asparreneko Udaleko alkatea, udalerrin horren izenean eta ordezkari gisa.

Erika Letamendi Hurtado, Donemiliagako Udaleko alkatea, udalerrin horren izenean eta ordezkari gisa.

Julio Guinea Martín, xxx zenbakiko NANA duena, ondorio horietarako helbidea Gasteizko Joaquín José Landazuri kaleko 15ean duena, Araba Garapen Agentziaren (aurrerantzean AGA) izenean eta hura ordezkari gisa, zuzendari gerentea den aldetik. Ordezkapen hori frogatzeko sozietatearen erabakiak publiko egiteko, botereak errebozkatzeko eta botereak emateko eskrituraren fotokopia aurkezten du, 2015eko urriaren 1ean EAEko Elkargo Agurgarriko notario den Fernando Ramos Alcázarren aurrean haren protokoloaren 965 zenbakiarekin emandakoarena.

Bertaratuek, erakundearen arteko harreman orok oinarri izan behar dituen koordinazio, lankidetzaren eta elkarrenganako errespetuaren printzipioen esparruaren barruan, nahikoa lege gaitasun aitortzen diote elkarri hitzarmen hau egiteko eta, horregatik, honako hau

Azaltzen dute

I. Asparrena-Donemiliagako industrialdera A-3020 errepidetik sartzen da orain, biribilgune txiki bat duen bidegurutze batetik, eta ez dago azelerazio eta dezelerazio erreirik bidegurutze horretatik A-1 autobidera eta A-1 autobidetik bidegurutze horretara sartzeko eta, gainera, errepideak trafiko handia duenez (EBBI>6.000 ibilgailu/egun) eta industrialdera sartzen den ibilgailu

astun portzentajea handia denez (% 40 baino gehiago), bidegurutze horretan gatazkak eta segurtasun arazoak etengabeak dira, industrialdera sartzen diren eta hartatik irteten diren ibilgailuek, bereziki astunek, ezinbestean egin behar izaten dituzten maniobrak direla eta.

Asparreneko Udalak, bere udal eskumenen barruan, eta Asparrena-Donemiliagako industrialdearen mantentzeaz arduratzen den herri administrazio gisa, " A-3020 errepideko 31+600 KPn Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbideak berrantolatzeke eta hobetzeko eraikuntza proiektua" izeneko proiektua (proiektuan jasotako obra, aurrerantzean) idaztea sustatu du. Proiektu hori Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko Errepide Zerbitzuaren zuzendaritzaren pean idatzi da.

Egungo bidegurutzeak sortzen dituen bide segurtasun arazo larriak konpontzeko, proiektu honek birplanteatzen du Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbideko bidegurutzerako sarbidea, egungoa baino askoz handiagoa den biribilgune zatitu bat diseinatuz: 30 metroko barruko diametroa izango du eta eratzunaren inguruko galtzada 7,5 metroko zabalerakoa izango da (0,5 metroko barruko bazterbidea, 6,0 metroko galtzada eta 1,0 metroko kanpoko bazterbideak), eta, horri esker, ibilgailu astunek segurtasun handiagoz biratu ahal izango dute. Halaber, industrialdearen eta A-1 autobidearen arteko loturen segurtasun areagotzeko, industrialdetik A-1 autobidera irteteko eta A-1 autobidetik industrialdera sartzeko gunetan abiadura aldatzeko (azeleratzeko eta dezeleratzeko) erreiak egingo dituzte, eta horrela, aldaketa horiek segurtasunez egin ahal izango dituzte gidariek. Kontratuaren aurrekontu globala 408.558,08 euro da, BEZa barne.

Asparreneko Udalak udalbatzaren 2019ko otsailaren 5eko erabakiaren bidez onetsi zuen proiektu hori.

Arabako Foru Aldundiak proiektu hori behin betiko onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 295/2019 Erabakiaren bidez, 408.558,08 euroko kontratu aurrekontu globalarekin, BEZa barne.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariaren 2020ko ekainaren 8ko ebazpenaren bidez, baimendu dira proiektu horretako obrak, jabari publiko hidraulikoa eta ur lasterren erregimena babesteko helburuz.

II. Proiektuan jasotako obrak, aurreko adierazpen zatian azaldutakoak, jarduerak ere ekartzen ditu Asparreneko eta Donemiliagako udalerritako lursailetan. Zehazki, Donemiliagako Udala titularra den lurzoru publikoetan jarduerak egitea ekartzen du.

III. Proiektuan jasotako obra, diruz lagundu daitekeen jarduketa da, "Industrialdeetako Renove programa-Urbanizazioa" aplikatzearen ondorioetarako (2018ko abuztuaren 31ko ALHAO, 168 zk.). Plan horren xedea da "laguntza ematea industrialdeetan, enpresa parkeetan eta jarduera ekonomikoko gunetan kokatutako urbanizazio-gune publiko eta pribatuak berrurbanizatu, zaharberritu, birgaitu eta hobetzeko proiektuak eta ekintzak gauzatzeko" (1. artikulua), "itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak" (2.1 artikulua) ematearen bidez.

Diruz lagundu daitezkeen dirulaguntzen barruan sartzen dira "Berrurbanizazioko proiektuak idaztea eta/edo gauzatzea, urbanizaziora bideratutako partzelak berroneratzea, birgaitzea eta hobetzea, eta industrialdeetako ekipamenduak, dotazioa eta jabetza publikoa".

IV. Inguruabar horiek kontuan hartuz, Asparreneko Udalak aurreko adierazpen zatian aipatutako dirulaguntza ematea eskatu zuen. Horretarako, Donemiliagako Udalak, 2018ko abenduaren 17ko alkatetza ebazpenaren bidez, eskaera onartu zion Asparreneko Udalari, bi udalen izenean.

V. 2018ko azaroaren 19ko ebazpenaren bidez (espedientea: RP-0009-2018), eskatutako dirulaguntza eman diote Asparreneko Udalari. Guztira, 102.398,75 euro dira, eta % 25eko aurrerakina (25.599,69 euro) ordaintzea erabaki da.

SPRIK 76.799,06 euro, edo bere kasuan dagokiona, ordaindu beharko dio Asparreneko Udalari diruz lagundutako jarduketa amaitzean, "Industrialdeetako Renove Plana-Urbanizazioa" programaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera.

VI. Edonola ere, Araba Garapen Agentzia SAK, Arabako industrialdeetako baldintzak hobetu eta industria sustatu nahi duenak, proiektuan jasotako obraren finantzaketan parte hartu nahi du. Obra hori, hitzarmen honen I. adierazpen zatia azalduta dago. Horrela, obraren gauzatzean (desjabetzeetarako aurreikusitako zenbatekoa kanpoan utzita) eta obra zuzendaritzarako eta segurtasun eta osasun koordinaziorako laguntza teknikoaren ordainsarrietan parte hartu nahi du, hitzarmen honen adierazpen zatiko V. atalean adierazitako dirulaguntzak barne hartzen ez duen zenbatekoan.

VII. Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Sailari dagokio eskumena, besteak beste, "Plangintza, proiektuak, errepideak egitea, kontserbatzea, eta ustiatzea"ren arloan.

Aurretik azaldutako guztiagatik, alderdiek lankidetzat hitzarmen hau izenpetzea adostu dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Sailaren, Asparreneko Udalaren, Donemiliagako Udalaren eta Araba Garapen Agentzia SAREN arteko proiektuaren kudeaketak, gauzatzeak eta finantzatzeak ekartzen dituen harremanak arautzea da. Proiektu hori hauxe da: "Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbidea berrantolatzeke eta hobetzeko eraikuntza proiektua finantzatzea eta kudeatzea A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan".

BIGARRENA. Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak.

Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Sailak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbidea berrantolatzeke eta hobetzeko eraikuntza proiektua, A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan" izeneko proiektua eta, hala badagokio, egin daitezkeen aldaketak onestea.

2. Asparreneko Udalari behar duen laguntza teknikoa ematea, hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean adierazitako proiektua zuzen gauza dezan. Laguntza tekniko horren barruan, gutxienez, jarduketa hauek barne hartzen dira:

Obraren lizitazio pleguak.

Udalaren lizitazio espedientean nahitaezkoak diren txosten teknikoak egitea.

Obraren zuzendaritza teknikoa, ikuskatzea eta kontrola.

Obra ziurtapenak ematea.

3. Hitzarmen honen azaltze zatiaren I. atalean identifikatutako proiektuan jasotzen diren obrak gauzatzeko beharrezkoak diren lursailak eskuratzea, desjabetze sistemaren bidez. Desjabetzearen kostuak Aldundiaren kontura izango dira.

HIRUGARRENA. Asparreneko Udalaren konpromisoak.

Asparreneko Udalak, hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean adierazitako obran parte hartu nahi du, eta haren sustatzaile gisa, konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbidea berrantolatzeke eta hobetzeko eraikuntza proiektua, A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan" izeneko proiektua,

Hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean azaldutakoa, eta, hala badagokio, egin daitezkeen aldaketak onestea.

2. Proiektu horretan jasotzen diren obren egikaritzea materiala kontratatzea.

Obren kontratazioa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak xedatutakoaren arabera egingo da.

Kontratazio mahaian, besteak beste, Araba Garapen Agentzia SAko ordezkari bat eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkari bat izango dira.

3. Obra zuzendaritzarako laguntza teknikoa eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea.

4. Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Sailari doan ematea Asparreneko udalaren jabetza diren lursailak, hitzarmen honen adierazpen zatiaren I. atalean aipatzen den proiektuan jasotako obra gauzatzeko beharrezkoak direnak.

5. Hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean zehaztutako obren egikaritze kostua ordaintzea, lehenik eta behin hitzarmen honen adierazpen zatiko V. atalean zehaztutako dirulaguntzaren kontura, edo jaso ditzakeen edo jadanik jasotako beste baliabide batzuen kontura, hitzarmen honen bosgarren klausulan aurreikusitakoaren arabera.

6. Hitzarmen honen adierazpen zatiko III. atalean zehaztutako "Industrialdeetako Renove Plana- Urbanizazioa" (2018ko abuztuaren 31ko ALHAO, 168 zk.) izeneko laguntza programak emandako dirulaguntza ordaintzeko ezarritako baldintzak betetzea, baita programa horretan dirulaguntzen erakunde onuradunentzat ezarritako betebeharrak betetzea ere.

7. Obra ziurtagirien kopia bidaltzea Araba Garapen Agentzia SAri, Arabako Foru Aldundiaren sail eskudunaren oniritziarekin.

8. Araba Garapen Agentzia Sari itzultzea sozietate horrek aurreratu dion zenbatekoa onartutako baina ordaindu gabeko dirulaguntzagatik (onartutako dirulaguntzaren % 75, edo kasuan kasuko emaitza), SPRIK dagokion zenbatekoa ordaindu eta 10 eguneko epean.

9. Donemiliagako Udalaren eskuordetzea onartzea, proiektuan jasotako obraren kontratazioa eta gauzatzeko kudeatzeko, obra zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko.

10. Donemiliagako Udalari bere udalerrian obrak gauzatzeko baimena eskatzea.

LAUGARRENA. Donemiliagako Udalaren konpromisoak.

Donemiliagako Udalak, hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean adierazitako obran parte hartu nahi du, eta konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Asparreneko Udalari eskuordetzea proiektuan jasotako obraren kontratazioa eta gauzatzeko kudeatzeko, obra zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko.

2. Asparreneko Udalari Donemiliagako udalerrian obrak gauzatzeko baimena ematea.

3. Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Sailari Udala titularra den lursailak doan ematea; hain zuzen ere obra gauzatzeko beharrezkoak direnak.

BOSGARRENA. Araba Garapen Agentzia SAren konpromisoak.

Araba Garapen Agentzia SAk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Diruz laguntzen ez den obraren kostua ordaintzea, hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean zehaztutakoa; gehienez, 306.159,33 euro.

2. Obra zuzendaritzarako laguntza teknikoaren eta segurtasun eta osasun koordinazioaren kostua ordaintzea.

3. Gainera, onartutako dirulaguntzaren % 75 aldi batean finantzatzea, hitzarmen honen adierazpen zatiko V. atalean zehaztutako % 25eko aurrerakinean sartuta ez dagoena.

4. Araba Garapen Agentzia SA titularra den lursailak Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Sailari doan ematea; hain zuzen ere hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean aipatzen den proiektuan jasotako obra gauzatzeko beharrezkoak direnak.

SEIGARRENA. Proiektuan jasotako obra garatzea.

Esku hartzen duten alderdiek erabakitzen dute proiektuan jasotako obra gauzatzen den bitartean hartzen diren erabakiak edo zehazpenak idatziz onartu beharko dituztela esplizituki Araba Garapen Agentzia SAK eta Asparreneko Udalak.

Horren berri emango zaio lehiaketaren adjudikazioduna izaten den kontratistari.

ZAZPIGARRENA. Aurrekontua eta ordainketa.

Hitzarmen honen adierazpen zatiko I. atalean zehaztutako proiektuan barne hartzen diren obren lizitazio aurrekontua (egikaritze obrak, desjabetzeen zenbatekoa kanpoan utzita) 408.558,08 eurokoa da, BEZa barne. Zenbateko hori Asparreneko Udalak ordainduko du, Araba Garapen Agentzia SAK bere gain hartutako baterako finantzaketa gorabehera.

Donemiliagako Udalak ez ditu bere gain hartuko proiektuan jasotako obra gauzatzeko kostuak.

Zehazki, finantzaketa hau aurreikusten da:

Asparreneko Udala Dirulaguntza	102.398,75 euro.
Araba Garapen Agentzia	306.159,33 euro
Obraren kostu osoa	408.558,08 euro

Obrak gauzatzeko kostua aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, kostuak, lehendabizi, dirulaguntza gisa emandako kopuruari egotziko zaizkio, eta gero, Araba Garapen Agentzia SAK hitzemandako kopuruaren kontura.

Obra zuzendaritzarako laguntza teknikoaren eta segurtasun eta osasun koordinazioaren aurrekontua Asparreneko Udalak dagokion kontratazio izapidea egin eta gero zehaztuko da.

Asparreneko Udalak egingo du proiektuan jasotako obra gauzatzeko jarduketan ordainketa. Bere izenean egingo ditu fakturak obraren egikaritze materialaz arduratzen den enpresak.

Era berean jokatu da obra zuzendaritzarako laguntza teknikoari eta segurtasun eta osasun koordinazioari dagokienez: Asparreneko Udalaren izenean egingo dira fakturak, eta hark, ordainketa egingo du, Araba Garapen Agentzia SAK geroago ematen duen dirua gorabehera.

Horrenbestez, Araba Garapen Agentzia SAK obraren gauzatearen, zuzendaritzarako laguntza teknikoaren eta segurtasun eta osasun koordinazioaren finantzaketan dagokion partaidetza, Asparreneko Udalak obra gauzatzen den neurrian bidaltzen dizkion obra ziurtagirietan edo fakturetan agertzen den zenbatekoa emanez egingo da.

Araba Garapen Agentziak finantzaketan parte hartuko du Udalak dirulaguntza aurrerakin (25.599,69 euro) moduan jasotako kopurua agortzen duenean. Hori dela eta, Asparreneko Udalak kopuru hori (25.599,69 euro) bidaltzen zaizkion lehen obra ziurtapen edo fakturak ordaintzeko erabiliko du, eta Araba Garapen Agentzia SAK finantzaketara joko du dirulaguntza ez denean nahikoa ziurtapen horiek ordaintzeko.

Obra amaitutakoan, eta SPRIk Asparreneko Udalari onartutako dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa ematen dionean, Asparreneko Udalak kopuru hori Araba Garapen Agentzia SARI itzuliko dio, hitzarmen honen 3.8 klausulan jasotakoaren arabera.

Hori gorabehera, hitzarmen hau sinatzen duten alderdi guztiei fakturen eta obra ziurtagirien kopia bidaliko zaie.

ZORTZIGARRENA. Obren berme epea amaitutakoan kontserbatzeko eta mantentzeko mugaketa.

Obren berme epea amaitutakoan, eraikitako bideetan Arabako Foru Aldundiari eta Asparrena-Donemiliagako industrialdeari dagokien partearen kontserbazioa eta mantentzea, hitzarmen honen I. eranskin gisa ageri den planoan islatzen da.

BEDERATZIGARRENA. Auziak eta gatatzak.

Hitzarmen honek administrazio izaera du eta, horrenbestez, hura betetzeko, interpretatzeko, ebazteko eta ondorioak izateko sortzen diren kontu guztiak, alderdien arteko akordiorik ez badago (aldez aurretik beti akordio adiskidetsua lortzen saiatuko baita), administrazioarekiko auzien jurisdikzioari jakinaraziko zaizkio, berak ebatz ditzan.

HAMARGARRENA. Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.

Hitzarmen honek ez du ekarriko parte hartzen duten aldeek beren eskumenei uko egiterik edo eskumen horiek aldatzerik. Aldeek, beraz, hitzarmen honetan hartzen dituzten konpromisoei dagozkien erantzukizunak hartzen dituzte beren gain, ez besterik.

Hitzarmenak izenpetzen den egunetik sortuko ditu ondorioak eta ordutik aurrera behartuko ditu parte hartzaileak. Hitzarmenaren xede diren obren berme epea amaitu arte egongo da indarrean.

Alderdiren batek ez baditu hartutako konpromisoak betetzen, beste alderdiak konpromisoak zehatz-mehatz betetzeko exijitu ahalko du edo hitzarmena suntsiarazteko eskatu.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Araia, 2020ko abenduaren 18a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ